



Osakidetza

ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA ARABA



PAZIENTE ETA FAMILIENTZAKO INFORMAZIO-DOKUMENTUA, SEDAZIO ARINGARRIARI BURUZKOA

ESI Arabako Sedazio Aringarriaren
Lan Taldea

2022ko Ekaina



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSAKIDETZA
SERVICIO VASCO DE SALUD

SEDAZIO

ARINGARRIA

Bizitzaren amaierako osasun-arretak pazientearen kontrol sintomatikoa eta laguntza bilatzen ditu, bere familia-ingurunerako beharrezko euskarriarekin batera, betiere erabakiak hartzeko prozesuan esparru etiko zorrotza errespetatuz.

Zenbaitetan, eskuragarri dauden tratamendurik egokienak erabili arren, ezin dira sintoma guztiak kontrolatu (mina, aire-faltaren sentrazioa, asaldura...); hori dela eta, sedazioa da aukera terapeutikorik egokiena.

Zer da sedazio aringarria??

Sedazio aringarria mediku-jardunbide egokitzat jotzen den neurri terapeutikoa da, sintoma batek edo gehiagok eragiten duten sufrimendua saihesten saiatzen dena, gaixoaren kontzientzia-maila pazientearen premien aurretik gutxituz.

Sedazioak ez du prozesua bizkortzen edo moteltzen (eta hala erakusten dute hainbat azterlanek). Gaixoaren sufrimendua saihestera zuzenduta dago beti, hori eragiten duen kausak talde aditu batek proposatutako neurriei erantzun ez dienean.

Nork agintzen du?

Prozedura terapeutikoa denez, bizitzaren azken fasean gaixotasun aurreratua duen pertsona artatzen duen laguntza-taldeak aginduko du sedazioa, beharrezkotzat jotzen duenean. Hain egoera berezian gaudenez, laguntza-taldeak ondo azaldu behar du zergatik hasi den eta zer helburu lortu nahi den. Horrela, larrialdi handiko egoera denean izan ezik, hasi aurretik alderdi horiek guztiak argitu behar dira, eta dokumentu txiki hau egiten dugu informazio hori osatzeko.



OHIKO GALDERAK



NIRE SENIDEAREN SEDAZIOA ESKATZEKO ESKUBIDEA DUT, BAITA NEURE BURUARENA ERE, BEHARREZKOA DELA USTE BADUT?

Eskura duzun tratamendurik onena jasotzeko eskubidea duzu, sintoma batek eragiten dizun sufrimendua saihesteko edo gutxitzeko. Artatzen duen taldeak helburu hori lortzeko dauden alternatibak ezagutzeko betebeharra du. Sedazioa gaixoa lokartzea eragiten duen alternatiba horietako bat da, eta horrexegatik du arreta berezia (kontzientzia gutxitzean, ingurunearekin komunikatzeko aukera ere murrizten da, eta bizitzaren azken fasean gaudenean horrek garrantzi handia du).

GAIXOA, ERABAT LOKARTUTA EGONGO DA?

Sedazio-maila arazoaren araberakoa da. Horrela, batzuetan nahikoa izaten da gaixoari lo pixka bat egitea, bilatzen den erosotasun-egoera lortzeko. Beste batzuetan, ordea, gaixoari sakonki lo egin behar zaio erosotasun hori bermatzeko..

PAZIENTEARI BAIMENA ESKATU BEHAR ZAIO HASTEKO? ETA FAMILIARI?

Kontua ez da hainbeste baimena eskatzea, baizik eta horri buruz hitz egitea, gaixotasun-prozesuan sedazioa beharrezkoa izateko aukera dagoenean. Egokiena gai horri buruz lehenago hitz egin izana da, hainbeste sufrimendu eragiten duen sintoma horren egoeran elkarrizketa zaila baita.

Hala, prozesuaren jarraipenean, komenigarria da arretaren plangintza partekatuari buruzko elkarrizketetan jorratzea eta Aurretiazko Borondateen Dokumentuan idatziz jasotzea. Historia klinikoan sedazioari buruz hitz egin den erregistratu behar dugu profesionalok, paziente artatu dezaketen lankide guztiek ikusteko moduko leku batean, erabakiak hartzea errazteko.

SEDAZIOAK HERIOTZA AURRERATUKO DU, EZTA?

Ez. Testuinguru horretan irmotasunez hitz egitea zaila bada ere, horri buruzko ikerketak dio trebatutako pertsonak egindako sedazio aringarriak, farmako eta dosi egokiekin, ez duela eraginik heriotza lehenago edo geroago gertatzeko. Dakiguna da lasaitasun-egoera bat lortzen duela, non pertsona zaintzen jarrai dezakeen bere prozesuak aurrera egiten duen bitartean. Izan ere, esku-hartze mota hori praktika on gisa bermatzen dute hainbat erakundek eta ingurunek (Etika Batzordeak, Eliza Katolikoaren Dokumentuak, etab.).

BERAZ, ITZULGARRIA IZAN DAITEKE? ESNATUKO DA ETA BERRIRO LEHEN BEZALA EGONGO DA?

Bizi-amaierako egoeran dagoen sedazio aringarri bat adierazten denean, amaiera hori gertu dago. Sedazioarekin amaiera hori ahalik eta leunena izatea bilatzen dugu, baina iristen ari da eta saihestezina da. Beraz, ez da espero aurreko egoerara itzultzea, baizik eta pertsona epe aldakor batean (orduetakoa edo egunetakoa) baina gutxi gorabehera laburrean hiltzea.

BAINA JATEN ETA EDATEN EZ BADU, EZ AL DA KALTEGARRIA GAIXOARENTZAT?

Egoera horretan, elikadura edo hidratazioa artifizialki behartzeak onura baino arazo gehiago sortzen ditu. Pertsona bat heriotzatik gertu dagoenean, ez du jaten edo edaten. Ondorio bat da, ez kausa bat. Ez jateak eta ez edateak ez du bere egoera okertuko, baina nutrizio edota hidratazio behartu batek arazo asko sor diezazkioke, bilatzen ari garen erosotasuna aldaraziko luketenak.

ETA ENTZUTEN DIGU? ULERTZEN DU ZER ESATEN DIOGUN?

Entzumena eta ukimena sedazio oso sakonekin ere agertzen diren zentzumenak direla jakina da. Sedatutako pertsona soinuak, musikak, ahotsak... ezagutzeko gai dela uste dugu. Agian ezinezkoa izango da esaldiak edo kontzeptuak ulertzea, baina hitz egiteko erabiltzen den tonua edo ahotsaren jatorria interpreta dezake. Horregatik, zaintzen duten pertsonak berarekin hitz egitera animatzen ditugu, gaixoarekin komunikatzera eta ingurune atsegin bat sortzera, bere bidea ahalik eta bake handienaz egin ahal izateko



**BIZITZAREN
AMAIERAN
SEDAZIOA
EGITEKO,
BEHARREZKOA
AL DA
OSPITALEAN
EGOTEA?**

Oro har, ez da beharrezkoa. Sedazioa, bizitzaren amaieran, ospitalean nahiz gaixoaren etxean egin daiteke (baita egoitza-zentro batean bizi bada ere, noski). Beti bermatuko da gaixoaren eta bere familiaren erosotasunik handiena. eta horrek ospitalean edo egoitzan, prozesuan laguntzea erraztuko du. Etxean, berriz, horretarako behar diren laguntza eta gomendioak emango zaizkie.

**ETA SEDAZIOA
HASI ONDOREN,
EZ DAGO ZER
EGINIK?**

Alderantziz, asko dago egiteko. Sedazioa hasi ondoren, medikazioaren erantzunaren etengabeko ebaluazioa eta gaixoaren zein familiaren zainketa fisiko eta emozionalei erantzuteko arreta-plana ezarriko dira. Beraz, denbora berezi bat da, non guztien zaintzak bere adierazpen gorena hartzen duen, eta non pertsona gaixoak eta bere familiazaintzaileak duten protagonismoa, eta profesionalen ardura da denbora berezi hori ezerk ez aldatzea.

BADAKIGU GARAI BEREZI HONETAN ZALANTZA BERRIAK SOR DAITEZKEELA EDO KONPONDUTZAT JOTZEN ZIREN BESTE EZBAI BATZUK BERRAGER DAITEZKEELA DOKUMENTU HONEN HELBURUA DA GEHIEN KONTSULTATZEN ZAIZKIGUNEI ERANTZUTEA, BAINA, JAKINA, ZURE ESANETARA GAUDE GURE ESKURA DAGOENA AZALTZEKO

Eskerrik asko zure konfiantzagatik

